



Joakin  
Lizarraga,  
Elkanokoa

1748-1835

BIDeGILEAK

Egilea:  
**Juan Apecechea**



# JOAKIN LIZARRAGA, ELKANOKOA

(1748-1835)

## Haurtzaro eta gaztaroa

**J**oakin Lizarraga, Elkanoko Bikarioaren izena, nortasuna eta bere idazlan harrigarria ezagutaraziak eta preziatuak izan dira zorionez, batez ere, azken hamarkada hauetan. Luis Luziano Bonaparte printzea, Napoleon Bonaparte enperadorearen iloba, izan zen haren izena eta euskal idazlanak XIX. mendearen erdialdean lehenengoz ezagutzera eman zituen, euskarari buruzko bere gramatika-ikerlanak aztertzen zituelarik. Printze honek berak argitaratu zituen lehenengoz Lizarragaren eskuizkribu batzuk ere. Gerorago, XX. mendearen bitartean, euskal

kultura arloko izen ospetsuak agertzen dira Lizarragarekin lotuak, hala nola R.M. de Azkue, Iraizozko Polikarpo eta Intzako Damaso, A. Irigarai, B. Fagoaga, K. Mitxelena, F. Ondarra eta J.M. Satrustegui.

Horrela Elkano herrixkako apaiz apal baten figura ezkututik atera eta etengabe agertzen eta hazten joan da euskal kulturaren arlo eta jarduera ezberdinetan. Elkanoko apaizaren produkzio idatzia ezagutzen duen edonor txunditurik gelditzen da bere oparotasunagatik, baita bere literatura-aberastasunagatik ere.

Elkano herriko  
ikuspegi airetikoa



Handia da, bestalde, Lizarragaren idazkien garrantzia, *begoaldeko goi nafarrera* euskalkiaren ordezkari nagusia eta ia-ia bakarra delako. Gaur egun desagerturik dagoen euskalki honi buruz gogoratze-koa da Bonaparte printzearen testigantza esanez hizkera hau zela hedatuena, beste guztien artean, XIX. mendean oraindik.

## JAIOTZA

Nekazari familia kristau baten altzoan jaio zen Lizarraga Nafarroako Elkano herrian, Egues ibarrean, 1748ko irailaren hamazazpian. Egues ibarra honako hemeretzi

herrixka hauek osatzen zuten orduan: Altzuza, Amokain, Ardanatz, Azpa, Badoztain, Burlata, Etxalatz, Egues, Egulbati, Elkano, Elia, Erantsus, Gorraitz, Ibiriku, Mendillorri, Olaz, Sagaseta, Sarriguren eta Uztarroz. Denen artean mila eta bostehun bat biztanle osatzen zituzten.

Bere jaiotetxea, Migelena, Egues ibarreko etxalderik ezagunenetakoa eta ondasuntuenetakoa zen. Hogei bizitetxe eta ehunen bat biztanle zituen Elkano herriak hemezortzigarren mendean. Nekazari-tza zen familia guztien ekonomiaren eta baliabideen oinarri eta iturri nagusia<sup>1</sup>. Herriko haurrentzat bazegoen eskola txiki

bat; helduentzat, berriz, ostatu xume bat. Eraikin handien eta nobleena parrokiak-eliza zen, noski, gaur egun oraindik ongi zaindu eta kontserbaturik dagoena.

Herriko eliza horretan izan zen bataiatua Lizarraga 1748ko irailaren 19an. Han bertan gauzatuko zuen gero, hirurogei urtez, bere apaiz ministerioa. Bere familiak elizan zuen hilobian izan zen hobiratua 1835eko urtarrilaren 23an, laurogeita sei urtez bizi ondorean.

Juan Tomas, Migelenako nagusia, eta Maria Frantziska Iragui, jaiotzaz Egozkue

(Anue) herriko alaba, ziren Lizarragaren gurasoak. Bost seme-alaba izan zituzten; baina hauetatik hiru gazterik hil ziren. Martin Juachin, 1752an jaioa, bost urtekin hil zen; Maria Frantziska, 1755ean jaioa, zortzirekin; eta Manuela Juachina Antonia, 1758an jaioa, sei hilabeterekin. Beraz, maiz eta bertatik ezagutu zuen Joakin Lizarragak heriotzaren itzala. Maria Josefa arreba, bi urtez gazteagoa, eta Joakin bera geratu ziren gurasoekin etxean.

Jaio eta bigarren egunean izan zen bataiatua, Martin Juachin Frantzisko ponte-izen eman ziotelarik. Hiru izen horiek, or-



Migelena  
jaiotetxea,  
Lizarragaren  
garaian



Migelena jaiotetxea, duela gutxi zaharberritua

Migelena jaiotetxearen atari nagusia



dea, *Juachin* izen bakarrean gelditu ziren ohizko bizitzan. Izen hori erabiltzen zuen bere lehenengo sinaduretan ere; geroago, ordea, *Joaquin* izena agertzen da beti bere agiri guztietan.

## LEHEN HEZKUNTZA ETA NOBIZIATUA

Lehendabiziko ikasketak Elkanoko haur-eskolan egin ondorean, 1760ko udazkenean, hamabi urte zituela, Iruñeko jesuiten Anunciada ikastetxera joan zen bere hezkuntza osatzeko asmoarekin. Ikastetxe ospetsu hartan ezagutu ahal izan zuen Sebastian Mendiburu irakasle eta euskal sermolari eta idazle ospetsua. A. Perez Goyena jesuitak dioenez, Anunciada ikastetxearen ekarpen aipagarrienak honako hauek izan ziren: latinaren ikasketak, Nafarroako historiaren ezagutza, euskararen sustapena eta Jesusen bihotzaren debozioa.

Hiru urtez humanitate ikasketak burutu ondorean, 1765ean Villagarcía de Campos, Valladolideko herrian, jesuiten nobiziatuan sartu zen. Herri horretan bertan, nobiziatuaren ondoan, jesuitek gramatika eta



humanitate ikastetxe bat, Espainia guztian ospetsuenetakoa, zuzentzen zuten.

Nobiziatua egiten ari zen bitartean, ikastetxe hartako irakasle izendatua izan zen, artean hemezortzi urte zituelarik. Mutil azkar eta prestutzat zeukaten noski ikastetxe hartako arduradunek. Han ezagutu ahal izan zuen Frantzisko Jose Isla jesuita, idazle famatua. Hona hemen Lizarragari buruz Islak egin zuen aipamen goresgarria: «Era un mozo de singular virtud, de modales muy compuestos y de una crianza correspondiente a su honrado nacimiento»<sup>2</sup>. Nobiziatuan lortu ahal izan zuen goi mailako hezkuntza gizatiar eta espiritualala.

## ERBESTERAKO BIDEAN

Edonoren bizitzan izaten dira data garrantzitsu eta erabakigarriak. Hala izan zen Lizarragarentzat 1767ko apirilaren 21a. Urte horren apirilaren 3an, Espainiako lurralde orotatik erbesteratzera bortxatuak izan ziren Jesusen Lagundiko kide guztiak. Karlos III. errege espainiarrak behartu zituen dekretu baten bidez.



Elkanoko elizako bataiarria, non bataiatua izan zen J. Lizarraga

Ehun ikastetxe baino gehiago derrigorez itxiarazi ondorean, ia-ia hiru mila jesuita erbesteratu behar izan zuten, Italia alderantz gehienak. Laurogei inguru atera ziren, begietatik malkoak zerizkiela, Villagarcia de Campos herriko nobiziatutik. Gure Lizarraga haien artean.

JUAN APRECIADA PEREIRA			
Nombre	Padre	Madre	Padre
Diego Alonzo	Juan	Isabel	Diego
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan
Antonio de la Cruz	Antonio	Isabel	Juan

Iruñeko Anunciada jesuiten ikastetxeko ikasleen zerrenda, Lizarragaren izena agertzen delarik

Erbesterako bidean, hamazazpi egunez era guztietako mehatxu eta bortxakeria jasari behar izan zituzten hemezortzi-hogei urteko nobizio gazte haiek agintari zibilen aldetik. Gaztelako hiri hauetan gertatu ziren erasoketak: Medina de Rioseco, Ampudia, Torquemada eta Palencian. Azken hiri horretan erabaki zuen azkenean Lizarragak bere jaiotetxera itzultzea, ordura arteko jazarpenei tinko aurre egin ondoren.

Erabaki samina izan zen Elkanoko nobizio gazteak, beste berrogei lagunekin batera, hartu behar izan zuena 1767ko apirilaren 21ean. Hementxe urterekin jaioterrira bueltatzean, bere ama Maria Frantziska, alarguna, eta bere arreba Maria Josefa bizi ziren Migelenean. Aita Juan Tomas bederatzi urte lehenago hil zen hogeita hemezortzi urterekin, hutsune izugarria etxe hartan utziz. Gizon bat beharrezkoa zen etxaldeko ondare eta lanen arduradun izateko. Aukera egokia zela ematen zuen Lizarraga gaztearentzat. Baina beste bide batetik zebilen haren asmoa.



Iruñeko Seminario zaharraren atari nagusia (XVIII. mendekoa)





# Artzain arduradun eta langilea

## ELKANOKO BIKARIOA

Nahiz eta jesuita izateko bere borondatea bortxaz eta bat-batean mozturik gelditu, elizgizon izateko asmoarekin iraun zuen. Filosofia eta teologiako ikasketak lau urtez egin ondorean, 1771ko irailaren 21ean apaiztu zen. Hogeita hiru urte zituen orduan. Juan Lorenzo Irigoyen eta Dutari (1768-1778), Iruñeko apezpiku baztandarren eskutik hartu zuen apaizgoa Donostiako Santa Maria parrokia-elizan. Kontuan hartu behar da Donostiako herria Iruñeko elizbarrutiko parte zela garai hartan.

Beharrezkoak ziren azterketa eta baldintza guztiak aurretik gainditurik, 1773ko

azaroaren 8an Elkanoko parrokiako bikario titularra izendatua izan zen. Herriko apaiz-etxean bizitzeko eskubidea zuen arren, nahiago izan zuen Migelenean bizi. Hirurogeita lau urte igaro zituen etxe hartan bere pastorgintzako eginbeharrak isiltasun eta otoitz giro baketsuan zintzo prestatuz eta betez.

Bi gertakizunak, biak ezberdinak, aldatu eta asaldatu zuten nolabait giro baketsu hura. Zer gertatu zen bada? Hogeita hamazazpi urte zituenean, hari-harian egon zen Iruñeko Seminarioko irakasle izendatua izateko. Trentoko kontzilioak, 1563ko dekretu baten bidez, elizbarrutietan Seminario edo Apaizgaitegien egoitza bereziak ezarri eta antolatzeko manatu zuen. Baina

Lizarragaren apaiz ordenazioaren agiria (1771)



dekretu hori Iruñeko elizbarrutian, beste leku askotan bezala, 1777. urtera arte ez zen gauzatu. Juan Lorenzo Irigoyen eta Dutari, apezpiku erratzuarra, izan zen obra handi hori sustatu eta eragin zuena.

Elkanoko bikario izendatzen duen agiria (1773)



Seminarioko eraikin berrian bi ikasketa ziklo bakarrak funtzionatzen zuten hasieran, filosofia hiru ikasturtez eta teologia hiru ikasturtez. Lehendabiziko urteetan ez zegoen latin eta humanitate ikasketak egiteko aukerarik. Bederatzi urte geroago, 1786an, izan zen antolatua humanitate zikloa. Ikastegi horretarako arduradun nagusi bezala J. Lizarraga, Elkanoko bikarioa, aukeratu zuten Seminarioko irakasle eta kargudunek Nafarroako apaiz guztien artean. Haren izena aurkeztu zioten A. Aguado eta Roxas apezpikuari esanez hura zela, haien ustez, pertsona egokiena bere gaitasun espiritual eta intelektualaren aldetik. Azkenean, ordea, beste apaiz bat izan zen izendatua, inolako agirian aldaketa horren arrazoirik agertzen ez delarik, orain arte behintzat.

Frantziar armadaren kontrako Independentzia Gerra izan zen Lizarragaren bizitza baketsua asaldu zuen bigarren gertakizuna. Izan ere, Elkanoko eskualdean eragin dramatikoak izan baitzuen. Istiluak 1812-1813 biurtekoan gertatu ziren. Frantziar tropak arpilaketa eta errausteari ekin zioten Elkanon eta inguruko herrietan. Lizarragak berak kontatzen duenez, bost aldiz alde egin behar izan zuten denek



Elkanoko parrokia-eliza

herritik. Azkeneko ihesaldian, zazpi egunez herritik kanpo egon ziren bitartean, soldadu frantziarrak lehendabizi eta gero ingelesak elizako eta etxeetako ondasunak eta gauza baliotsu guztiak suntsitu eta lapurtu zituzten.

Gerra amaitu ondorean, hiru urteren burura lortu ahal izan zuten herriko egoeraren eta ekintza guztien normalkuntza. Lizarragak, bere aldetik, txukundu eta erabat zaharberritu behar izan zuen eliza eta ornamentu eta tresna berriez hornitu.

## KATEKESI ETA PREDIKAZIOA

Lizarragaren lan eta apaiz eginkizunik harriagarriena, katekesi eta predikazio arloan



Elkanoko elizako gurutzeta. Honen behealdean izan zen hobiratu J. Lizarraga (1835)

egin zuena izan zen. Ardura eta langintza pastoral horrek markatu eta bete zuen bere bizitza guztia. Trentoko kontzilioak katekesi eta predikazioaren obligazioari buruz eman zuen dekretua zinez hartu eta zintzo praktikatu zuen beti. Hori bera gogoratu eta gomendatu zien maiz aski

bere apaiz-lagunei ere: «Etzaitela descuida óntan berére, emátean doctrinarén óngia bearradiña: biz au Aitaguréac dión egunoróco óguía, béntzait garizúman, ta gañaracoan igandeorócoa berére. Jangoicoac viztudezázula ezaumentuarén árguía, ta fedearéna»<sup>3</sup>.

Kristau hezkuntzaren betebharra, dio, meza santuarena bezain larria da. Egun

argi eta eguzkitsuetan erleak loreen nektarra xurgatzera irteten diren bezala, hala kristauek hurrupatu behar dute ebanjelioaren eta katekesiaren doktrina eta Jainkoaren jakinduria bihurtu.

Behin baino gehiagotan gaitzesten du sermoi-liburuak pulpitan, besterik gabe, ahalegin eta ekarpen pertsonalik gabe, irakurtzeko ohitura. Hala egiten baitzuen



Migel goiaingeru santuaren aldarea Elkanoko elizan



Elizako burdin sare eta erretaula nagusia



garai hartako predikari askok. Erabat beste modukoa izan zen Lizarragaren jarrera. Harrigarria da herrixka bateko apaiz honek kristau hezkuntzaren alde eta, aldi berean, euskararen alde egin zuen lana. Horretarako, Bibliaren, Eliz Maisutzaren eta hainbeste teologo eta idazle handien testuak zehatz-mehatz euskaratu behar izan zituen.

Trentoko kontzilioak agindu zuena betez, kristau fedearen dotrina zintzotasun eta zintasun handiaz aurkeztu zuen beti, hizkera garbia, ulergarria eta herrikoia, bere entzuleei zegokiena, erabiliz. Beti saiatu zen, bestalde, bere hitzaldiak luzeegiak ez egiten, bai baitzekien sermoi ongi egituratuak, laburrak izanik, probetxu ugariago ekar zezaketela: «Ala aisago delaríc, aguián izánen ere dá próchu yágo, cerén ezi predícu lúcea baiño lenágo acabatzendá comunquiró adizaleén aténciao, ta devócioa, eta génde comúnac artáic guti entendátzen, ta gutiágo daráma echéra, ezpadá choil claro eta seguída onéan»<sup>4</sup>.

Erretaula nagusiaren erdiguneko baxuerliebea:  
Jesus hauraren Aurkezpena

Aitortzen du, ordea, berak prestatutako predikuek ez dutela zehatz betetzen laburtasun aholku hori. Justifikatzen da esanez, sermoi horiek ez direla izan taxutuak dauden bezala esateko, baizik norberak aldatu, laburtu eta egokitu behar dituela.





# Idazle trebe eta ugaria

## PRODUKZIO IDATZIA

Harrigarria da Lizarragak egin zuen idazlana. Sermoi eta hitzaldi guztiak osorik

Lizarraga, Elkanoko  
bikarioaren aldeko  
epaiketa (1773)



idazteko ohitura zuelarik, eskuizkribu mar-  
dul eta bikainetan bildu zuen bere apaiz  
irakaspen osoa.

Bere eskuizkribuen daten arabera, 1771  
urtetik 1821eraino luzatzen da bere idaz-  
lana. Berrogeita hamar urtez ekin zion,  
beraz, ahalegin horri, eta tamaina ezberdi-  
netako hamasei bat kodizetan bildu zituen  
bere eskuidazkiak. Bost mila bat folio, le-  
tra txiki eta txukunez idatziak, osatzen  
dituzte denera idazki horiek. Euskaraz  
idatzi duen autorerik emankorrenetakoa  
izan da zalantzarik gabe.

Azpimarratzekoa da, gainera, pergamino  
azalez koadernaturiko kodizeen dotoretasuna  
eta beraien kaligrafiaren txukuntasun

eta apaintasuna. Zentzuzkoa da L. Villasantek hari buruz esaten duena: «Impresiona verdaderamente la producción de este autor por su magnitud y copia»<sup>5</sup>.

Kodize hauek, esku askotatik pasa ondorean, gaur egun lau lekutan gordetzen dira. Sei, Nafarroako Gordailu Orokorean daude; bost, Iruñeko Apaizgaitegiko Bibliotekan, Severo Andriani Iruñeko apezpikuak oparituak; eta beste batzuk Iruñeko eta Hondarribiko kaputxinoen biblioteketan. Bere eskuidazkiren bat desagertu izan arren, gure egilearen obra ia-ia orokorra kontserbatzen da zorionez<sup>6</sup>.

Azken testamentuaren bidez, 1819an Lizarragak bere iloba Francisco Joaquín Unciti Lizarraga, Orrioko bikarioa, izendatu zuen liburuen eta eskuizkribuen oinordeko. Iloba hau 1845ean zendu zenean, liburu eta dokumentu guztiak Elkanoko Migelena jaiotetxean bilduak izan ziren, dirudienez. Ondorengo urteetan, ordea, etxe horretatik atera eta, ezagutzen ez diren arrazoiengatik, beste toki askotara bideratuak izan ziren. Aipatutako leku eta liburutegietan bukatu zuten azkenik beren ibilaldia.



Independentziako Gerran Elkanoko herriak eta elizak jasan zituzten kalteei buruz Lizarragak idatzitako kronikaren zatia (1813-1814)



«Doctrina Christia euscarás» eskuizkribuaren lehen orrialdea (1811)

Ze helburu nagusi izan ote zuen egileak hainbeste idazki prestatu, zaindu eta gordetzeko? Asmorik izan ote zuen bere lanak argitaratzeko? Eskuizkribu baten hitzaurrean argi adierazten du zein izan zen bere helburu nagusia: «Escrivitu-tút itzgái urréngoac, izatecó prést cerbáit erratecó neuronéc; eta bércé norbaitec, ni ilasguéros, naibadú valiatu cerbáit ebétras, ez erránes alá, nola dauden, baicic izan-dézan céri euchi, eta nóndic átra itzgáia bearrórduan, quéndus, ichéquis, ta aldá-tus, nola duén placér»<sup>7</sup>.

Bere idazlanen helburu nagusia izan zen, beraz, prediku eta katekesi ministerio-rako gaiak lagungarri bezala prestatu-rik edukitzea, bai berarentzat, bai beste apai-zentzat ere. Hirurogeita hiru urtez burutu zuen pastoraltza lana eta erlijio hezkuntza ederki islatzen dute bere idazkiek.

## ESKUIZKRIBUEN EDUKIA

Edukiari dagokionez, Elkanoko bika-riorearen eskuizkribuak lau zati nagusitan sailkatu daitezke: kristau-dotrina edo katekesiaren irakaspena; homilia-predikazioa; hagiografia-produkzioa; eta bertso-gintza edo koplalana.

*Katekesi-irakaspena* edo kristau dotrinari buruzko sermoien zatia da denetan zaba-lena. Lau eskuizkributan gordetzen dira, bi mila eta bostehun bat folio guztira. Bi lehenbizikoak 1771-1782 eta 1782-1784 urteen bitartean idatziak izan ziren. Bi azkenekoak, berriz, 1803-1810 urteen bi-tartean. Duela gutxi argitaratuak izan dira bi azkeneko hauek<sup>8</sup>. Pio V.aren Erromatar Katezismoaren lau zatiak komentatzen

«Credoaren,  
Mandamentuen  
eta Sacramentuen  
erabaquiera»  
eskuizkribuaren lehen  
orrialdea



ditu egileak: Kredoak, Mandamenduak, Sakramentuak eta Otoitza.

*Homilia-predikazioan* liturgi urteko berrogei igandeetako ebanjelio-testuak eta beste festa berezi batzuei dagozkienak komentatzen dira. Hiru eskuizkribuetan aurkitzen dira sermoi hauek, guztira mila eta bostehun bat folio dituztelarik. Batak 1800 urteko data darama eta hirurogeita hamar sermoi hartzen ditu. Nafarroako Gordailu Orokorrean jasorik dago<sup>9</sup>. Bigarrenak, 1802ko datarekin, hirurogeita hiru sermoi hartzen ditu<sup>10</sup>. Hirugarrenak, 1785eko datarekin, hirurogeita hamasei sermoi biltzen ditu.

*Hagiografia-produkzioak* ehun eta laurogeita zazpi Santuen bizitzak biltzen ditu bi eskuizkributan banaturik. Lehenbizikoan, 396 foliotan, Jesusen, Mariaren eta ehun eta laurogei Santuren bizitzak biltzen dira<sup>11</sup>. Bigarren eskuizkribuak ehun Santuren bizitzak ditu 330 foliotan. Azken hauetako batzuk aurreko eskuizkribuan agertzen direnen birrelaborazioak dira. Lizarragak berak adierazten duenez, biografia hauen iturri bezala P. Ribadeneira (1526-1611) jesuitaren *Flos Sanctorum* erabili zuen<sup>12</sup>.



Eskuizkribu baten lehen orrialdea, Trentoko Kontzilioaren testu bat aipatuz (1802)



Eskuizkribu baten orrialdea, latinezko ereserki batzuen euskarazko itzulpenarekin

*Bertsogintza edo koplalana* da, agian, zati-rik bitxien eta originalena. Lau gai nagusi erabiltzen ditu bere kopletan: Jesu Kristo, Ama Birjina, Eukaristia eta Kristau Doctrina. «Jesus onaren honra ta amoretan» egindako koplak bost mila bat bertso-lerro dituzte; «Ama Virginaren gloriatan» egindakoak, hiru mila seihun eta hogeita hamazazpi bertso-lerro; «Sakramentu Santuaren laudarioetan» egindakoak, hiru mila seihun bertso-lerro inguru<sup>13</sup>; «Doctrina Christioari» buruzkoak, mila eta hirurehun bertso-lerro inguru. Kopla hauek denak ehun bat folio osatzen dituzte<sup>14</sup>.

Orain arte deskribatutako produkzio idatziaz gain aipatu behar dira, halaber,

Eukaristiari buruz egindako tratatu mar- dula, 466 foliotan<sup>15</sup>; eta San Joanen Eban- jelioaren itzulpena 42 foliotan, Bonaparte printzeak argitaratu zuena<sup>16</sup>, Nafarroako Gordailu Orokorrean jasorik dago<sup>17</sup>.

Unibertsitate-talde ikertzaile batek iri- tzi hau ematen du Lizarragaren idazkiei buruz: «Erraldoi baten lana dela esan dai- teke, hala idatzien kantitatearen aldetik, nola kalitatearenetik, eta euskal dialekto- logian ez ezik, euskal literaturan ere leku garrantzitsu bat hartzen du»<sup>18</sup>.

## TESTUEN TRANSKRIBAKETA

Eskuizkribuen transkribaketari buruz ko- meni da ohar eta irizpide batzuk kontuan edukitzea.

Lehenik, Lizarragak berak zalantzak iza- ten ditu hitz batzuen ortografiarekin, batzuetan modu batean eta besteetan modu ezberdinean idatziz. Hona hemen adibide batzuk: *ichsquritu* / *isquritu*; *chsratu* / *zoratu*; *berachstu* / *berastu*; *chsa- quintasun* / *jaquintasun*; *jaiqui* / *chsaiqui*;

Igandetako ebanjelioei buruzko sermoiak biltzen dituen eskuizkribuaren lehen orrialdea (1783)





*eri / heri; amu / hamu* etab. Gure ustez hobe da jatorrizko testua errespetatzea.

Hitz konposatuetan, batzuetan argi ikusten da bi zatiak lotuak daudela; baina besteetan ematen du bereziak daudela: *ainguiruguardiaco / ainguru guardiacoa; escupean / escu pean; oinpean / oin pean* etab.

Azpmarratzekoa da, bestalde, Lizarragak maiz erabiltzen dituela hitz laburtuak. Hona hemen gehienetan laburturik erabiltzen dituen batzuk: *evangelio, erreligione, espiritu, Jangoico, Christo, misericordia, magestadea, santissima* etab. Hitz laburtuetan noski ez du azenturik erabiltzen.

Puntuazio-markek ere arazo bat baino gehiago sortzen dute. Lizarragaren puntuazio-sistema noski ez dago bat gaur egun jeneralean erabiltzen dugunarekin. Gure iritziz, egilearen puntuaketa errespetatu egin behar da.

Hitz berberetan, batzuetan hizki larria erabiltzen du hasieran, eta besteetan hizki xehea: *Evangelio / evangelio; Virgin / virgin; Eliza / eliza; Erreligione / erreligione;*

*Erregue / erregue* etab. Hobe da dauden bezala jasotzea.

Ohartarazi behar da azkenik, eskuidazkietan aurkitzen direla noizbehinka Lizarraga beraren huts edo akatsak, nahiz eta bera oso arduratsua den bere idazlanetan. Kasu horietan ere hobe da testua dagoen bezala jasotzea.



Eskuizkribu bateko sermoin aurkibidea

# Bere euskalkiaren berezitasunak

## HEGOALDEKO GOI-NAFARRERA

Zein euskalkitan idazten du Lizarragak? L.L. Bonaparte printzeak 1869an egin zuen euskalkien azken sailkapenean, *hegoaldeko goi-nafarrera* izena ematen dio Iruñerrian erabiltzen zen hizkerari eta konkretuki Lizarragarenari. Printze frantziarrak bere eskuetan eduki zituen haren zenbait eskuizkribu eta sakonki eta gogotik aztertu zituen gramatika alde-tik. Hegoaldeko goi-nafarrera zen XIX. mendean oraindik beste guztien artean hedatuena; baina baita ahulezia larrienean zegoena ere, Bonapartek egindako euskalkien mapan agertzen den bezala<sup>19</sup>.



Lizarragak erabili zuen *Flores omnium pene Doctorum* lehen orrialdea (1558)

Lizarragaren euskarari buruz derrigorezkoa da ohar bat egitea. Izan ere, kultura eta jakintza aldetik gizon prestatua zelarik, jakina, bere hizkera eta idazkera txukuntzen eta apaintzen saiatu zen. Hori bai, bere lurraldeko jatorrizko euskalkiaren kutsua eta aztarnak galdu gabe.

Datu batzuk ere euskara lantzen ahalegindu zela erakusten digute. Adibidez, argitaratu gabeko eskuizkribu batean Larramendiren izena espreski aipatzen du, haren obra eza gutzen duela adieraziz<sup>20</sup>. Begira zer esaten duen horri buruz M. Lekuonak: «Lizarraga es más gramatical, más cultivado, menos espontáneo, influido sin duda por Larramendi»<sup>21</sup>.

Bestalde, ezagutu eta, beharbada, miretsi ere ahal izan zuen S. Mendiburu jesuita, irakasle eta euskal sermolari eta idazle ospetsua, ikasketak Iruñeko Anunciada ikastetxean egiten ari zenean. Bere liburutegian bazegoen, gainera, Axularren *Gero* obraren ale pertsonal bat, gaur egun oraindik kontserbatzen dena. Axular, Larramendi eta Mendibururen izenek agertzen digute Lizarragak bazuela euskarari buruz kezka eta sentsibilitate berezia.



Lizarragak erabili zuen Axularren *Guero*-ren lehen orrialdea

Hala nabarmentzen digu, baita ere, Iruña aldeko euskara, berak erabiltzen duena, kritikoki *gaitzcará* dela esanez: «Doctrina Christioa euscarás, Aita Gaspar Astete jesuitac erdarás dacárren guisará guti gora bera: Iruñ aldeán usatzendén mintza-éran (égua erratecó, euscára gaitzcará)»<sup>22</sup>.

Aitortu beharra dago, alabaina, latin eta gazteleratikoko mailegu askotxo erabiltzen

L.L. Bonaparte  
printzearen  
gramatika-  
-oharrak  
Lizarragaren  
eskuizkribu  
batean



duela. Eragin hori bera nabarmena da joskeran ere, A. Irigarayren esanean: «Bere yoskerak erderatiko kutsu bat badu; baina oso aberatsa da bestalde verboaren itzulietan, itzetan eta esakeretan ere; beraz, lingüistaendako preziasua eta ikasgarra»<sup>23</sup>.

Dena den, Elkanoko bikarioaren idatziak dira iturririk nagusia hegoaldeko goi-nafarrera euskalkia ezagutzeko eta aztertzeko. Hala dio L. Villasantek: «Los

escritos de Lizarraga revisten particular interés por ser los testigos más importantes de una variedad vasca hoy desaparecida, a saber, el dialecto altonavarro meridional, tal como se hablaba en los alrededores de Pamplona»<sup>24</sup>.

Euskalki honi buruz dagoeneko ikerlan franko eginak izan dira. Denen artean, orde, zehatzena eta osoena Deustuko Unibertsitateko lan-talde batek egindakoa da<sup>25</sup>.

Hona hemen laburki, ezaugarri gisa, euskalki horren berezitasun batzuk, Lizarragaren idazkietan agertzen diren modura:

## A. DEKLINABIDEA

### 1. Izena:

- Genitiboko *-ren* atzizkiaren orde, *-ain* agertzen da batzuetan: *astoain humea; arimain ona*.
- Sozietibo singularrean *-(a)rekin* atzizkia *nrik* gabe agertzen da: *gorputzarequi*.
- Maiz erabiltzen da *-rat* atzizki adlatiboa norabidea adieraziz: *cerurat, iruzquirat*.



- *-teko, tzeke* helburuzko adizkiekin, osagarri zuzenaren ordeztu genitiboa erabiltzen da batzuetan: *naigabeen arintzeco*.

## 2. Izenordainak:

- *ni* izenordain pertsonalaz gain, *ene* formaren flexioak erabiltzen dira: *enegatic, enetaco, enequi*.
- Hikako tratamendua era agertzen da noizbehinka: *i aiz*.
- Maiz aurkitzen dira izenordain pertsonalen forma intentsiboak: *neuronec, zeurorrec, eurorrec*. Baita edutezko adjektiboetan ere: *zeure besoetan, neure vicigau*.
- Askotan agertzen dira, *ori, orrec, orren*, berorikako formak: *Jauna, orrena naiz, ez naiz atzenduco ortas*.
- *hauek* erakuslearen ordeztu, *ebec* agertzen da bere flexioekin: *ebei, eben, ebequi, ebendaco*.
- Adjektibo erakusleak, *g* baten bitartez izenarekin lotuak aurkitzen dira: *semegau, guisagontan, gauzaguebec*.
- *inor, inork* izenordainen ordeztu, *nior, niorc* erabiltzen dira: *niorc ere ezdezala ori erran*.

## B. ADBERBIOAK

- *-ki* eta *-oro* atzizkien bitartez adberbioak eratzeko joera: *laburqui, amolsuqui, iloro, laburquiro*.
- Leku-adberbio gisa agertzen dira maiz *onat, arat, arata, norata, aratago*.
- Metatesiaz, *bentzait* erabiltzen da *behintzat* formaren ordeztu.
- *inoiz, inolazere* formen ordeztu, *nior, niolaterere* agertzen dira.

## C. JUNTAGAILUAK

- Maiz erabiltzen da partikula *ezi* esanahi ezberdinekin:
  - a) kausal zentzuan: *ezi ortaco etorrigara mundura*.
  - b) konparatibo baten ondorean: *Jauna obego da, ezi munduco gauzac*.
  - c) perpausa konpletibetan: *egui diot, ezi erri ontas erranzu Jangoicoac*.
- Zentzu kausalean maiz agertzen da *ceren*, edo bakarrik edo *ezi* partikularekin: *ceren ezi diruec iteunte ona bolsa*.
- *baldin* partikularen ordeztu, *barin* erabiltzen da: *barimbada ilceco peligroric*.



## D. ADITZA

### 1. Adizki perifrastikoa (indikatioa):

- Baiezko perpausetan, aditz laguntzailea aditz nagusiarekin lotzen da: *biltzendire*, *etorrida*. Ez, ordea, ezezko perpausetan: *ezpaita etorri*, *ezpainezaque eguin*.
- Iraganaldian, azken *n* galtzen da ia-ia beti: *aguertuce*, *assicire*, *joanomenzizaio*.
- Askotan, ez beti, galtzen dira aditz laguntzailearen *d*, *di*: *icuscoute* (ikusko dute), *itentu* (egiten ditu), *itentusten* (egiten dituzten), *errarentut* (erraten ditut).
- *-zqui* eta *-ti* pluralgile biok agertzen dira: *citigu* – *cizquigu*, *citio* – *cizquio*, *dizquiot* – *tiot*.

### 2. Adizki trinkoa (indikatioa):

Maiz erabiltzen da aditz trinkoa. Hona hemen forma trinkoen esanplu bakar batzuk, intrantsitiboak nahiz trantsitiboak, orainaldian nahiz iraganaldian:

- egon (*nago*, *daude*, *nengo*, *cego*, *cindeude*, *dagoquida*, *dagoquigu*)

- joan (*noaie*, *doaie*, *zoaste*, *doaquida*, *dagoquiolaic*)
- jakin (*daquit*, *daquigu*, *daquizie*, *cequie*, *cequite*, *cequizquien*)
- etorri (*nator*, *datoz*, *nagoquio*, *dagoquio*, *cetorquion*)
- jario (*dario*, *darraio*, *darraizquio*)
- jarraiki (*darraio*, *darraizquio*)
- ibili (*nabila*, *gabiltza*, *zabiltza*, *cebila*, *cebiltza*)
- esan-erran (*diot*, *diogu*, *dioze*, *cio*, *ciote*)
- eduki (*daucat*, *dauzquit*, *neuca*, *ceuca*, *zauzquie*, *nauczize*)
- eramán (*darama*, *damazqui*, *daramate*, *zerrama*, *zemate*)
- ekarri (*dacarra*, *cecarra*, *dacarzquien*, *dacarzquizu*, *cecazquiela*)
- iharduki (*darducat*, *darducagu*, *darducaze*, *cerduca*)
- iraun (*dirau*, *diraute*, *cirauen*)
- ikusi (*dacusat*, *dacusate*)
- erabili (*dabilate*)
- etzan (*baitatza*)
- atxiki (*dachico*)

## E. AZENTUAZIOA

Lizarragaren idazki guztiek badute zerbait erabat berezia, beste inorengan agertzen ez dena: azentuazioa. Harrigarria da nola markatzen dituen tildearekin, orduko mintzairan azentu tonikoa zeramaten hitz guztiak.

Datu hori oso garrantzitsua da noski Iruñerriko euskalkiaren edota hegoaldeko goi-nafarreraren doinua edo intonazioa ezagutzeko.

Ohartu behar da, ordea, hitz batek berak leku ezberdinetan eraman dezakeela tildea, edota ez eraman, perpausa bakoitzean daukan posizioaren arabera: *guciá, gucíá, gucia*. Hitz batzuk, gainera, bi tilderekin agertzen dira noizbehinka: *burátsoéi, cegó-quióna*.



Joakin Lizarraga (Irkus Robles Arangiz margolariaren irudia)

## EUSKAL LITERATURAREN HISTORIAN

Historialari ezagunenek 1960ko hamarkada inguruan Lizarragaren idazlanari eskaini zioten lekua nahiko murriztuta

azalekoa izan zen. Akats horren arrazoia ulergarria da, kontuan hartuz garai hartan eskuizkribuen zati txiki bat besterik ez zela izan argitaratua oraindik. Hala aitortzen du L. Villasantek: «Toda su producción quedó inédita, ya que nada se

publicó en vida de él, y aun hoy la mayor parte continúa sin ver la luz pública»<sup>26</sup>. Hala eta guztiz ere goستن du egilea, «gigante solitario» bat dela esanez, Iruñerriko euskalkiaren lekuko ia-ia bakarra izateagatik.

Irigarayk ere asko gorai patzen du haren paregabeko ugaritasuna, euskaraz idatzi duten nafar idazle guztien artean handiena. Bere idazkiak, dio gainera, benetan aberatsak dira lexiko, aditz eta esakuntzen aldetik<sup>27</sup>.

K. Michelenak gehixeago neurtzen ditu bere laudorio hitzak. Egilearen hiru liburu bakarrak izan zirela argitaratuak orduraino, zioen 1958an, eta ez dutela balio literario berezirik<sup>28</sup>. Bi urte geroago, beste iritzi hau ematen du: «Lizarraga, por el dialecto en que escribió y por el fondo de su trabajo, no deja de parecerse a Mendiburu, aunque sin la pureza y la fluidez de éste»<sup>29</sup>.

Lehenago, L.L. Bonaparte eta R.M. de Azkue hizkuntzalari ospetsuen jakin-min bizia sortu zuten Lizarragaren idazkiek beraien aberastasun linguistikoagatik.

Nolanahi ere, Elkanoko Bikarioak, bere mugak kontuan hartuta ere, euskal literaturaren marko eta mapa apalean leku duin bat merezi duela uste dugu.

## BIBLIOGRAFIA

- B. FAGOAGA, «Azkueren iztegi berritu eta osoturako Joakin Lizarraga Elkanoko Apaizaren liburu argitarara gabekoetatik ateratako itz saila», *Euskera* (1959) 63-78.
- A. IRIGARAY, «Lizarraga Elkanokoa», *Euskera* (1959) 119-126.
- P. DE IRAIZOZ, «Vocabulario y fraseología de Joaquín Lizarraga», *FLV* (1978) 245-297; *ibid.* 461-468; *ibid.* (1979) 121-162; 303-332.
- F. ONDARRA, «Producción literaria de Joaquín Lizarraga (1748-1835)», *FLV* (1972) 265-281.
- J. APECECHEA, *Joaquín de Lizarraga (1748-1835)–Un escritor navarro en euskara*, Pamplona 1978.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Iruñeko Apaizgaitegiko Bibliotekako arduradunei
- Iruñeko Kaputxinoen San Pedro Komentuko bibliotekariari
- Elkanoko Parrokiari eta Orbaiz familiari
- Irkus Robles Arangiz margolariari (lehen orriko irudiaren egilea)

#### Oharrak

<sup>1</sup> Lizarragaren biografia zehatz baterako, ik. J.APECECHEA PERURENA, *Joaquín de Lizarraga (1748-1835) – Un escritor navarro en euskara*, Pamplona 1978.

<sup>2</sup> F.J.ISLA, *Memorial en nombre de las cuatro rovincias de España de la Compañía de Jesús desterrados del Reino de S.M. el Rey Don Carlos III* (Madrid 1882) 58.

<sup>3</sup> J.LIZARRAGA, *Doctrina Christioa euscaras exempluequi* (1811 urtean), fol 4 (eskuizkribu argitaratu gabea).

<sup>4</sup> IBID., fol 3.

<sup>5</sup> L. VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca* (Bilbao 1979) 237.

<sup>6</sup> Lizarragaren eskuizkribuei buruzko xehetasunak ezagutzeko, ik. F.ONDARRA, *Producción literaria de Joaquín Lizarraga (1748-1835)*, Fontes Linguae Vasconum 4 (1972) 265-281. J.APECECHEA, *Joaquín de Lizarraga (1748-1835) – Un escritor navarro en euskara*, Pamplona 1978, 241-264.

<sup>7</sup> J.LIZARRAGA, *Doctrina Christioaren explicáçioa euscarás*, 1. tom. fol 1v (1803ko urtearen data daraman eskuizkribu argitaratu gabea).

<sup>8</sup> J. LIZARRAGA, *Doctrina Christioaren Cathechisma* (Iruña 2004) (Juan Apececheak prestatutako edizioa).

<sup>9</sup> AGN, Bonaparte Ondarea 31.

<sup>10</sup> Hondarribiko kaputxinoen bibliotekan jasorik dago.

<sup>11</sup> Biografia hauen artean aurkitzen da Xabierko Frantziskorena, D.Intza kaputxinoak 1922ko urtean argitaratu zuena. Nafarroako Gordailu Orokorrean jasorik daude bi eskuizkribu hauek (AGN, Bonaparte Ondarea 3; 2).

<sup>12</sup> Hagiografi produkzio hau guztia argitaratua izan da, J.Apececheak eta F. Ondarrak prestatutako edizio kritikoaren bidez: J.LIZARRAGA, *Jesukristo, Maria eta Santuen bizitzak*, Iruña 1994.

<sup>13</sup> Eukaristiar buruzko kopia hauek Bonaparte printzeak argitaratu zituen: *Jesus. Copla guisa batzue molde gutitacoac, celebratus Jesus Jaunaren amoreac ta favoreac, Don Joaquín Lizarragac componduac*, ta Luis Luciano Bonaparte principeac argitara emanac (Londresen, 1868).

<sup>14</sup> Bertsogintza lan hau guztia, J.Apececheak argitaratu zuen: J.LIZARRAGA, *Koplak*, Bilbao 1983. Nafarroako Gordailu Orokorreko bi eskuizkributan sakabanaturik aurkitzen da bertsogintza lan hau guztia (AGN, Bonaparte Ondarea, 2; 58).

<sup>15</sup> *Liber continens sermones de eucharistia ad populum rusticorum cantabrico idiomate. Ab anno 1776 et detnceps*. Nafarroako Gordailu Orokorrean jasorik dago (AGN, Bonaparte Ondarea, 43).

<sup>16</sup> *Jesucristoven evangelio santua Juanec dacarran guisara, Don Joaquín Lizarragac euscaran itzulua itzes itz, daiquen diña, eguiaren amorez, ta Luis Luciano Bonaparte principeac argitara emana* (Londresen, 1868).

<sup>17</sup> AGN, Bonaparte Ondarea, 2.

<sup>18</sup> «Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak – Hegoaldeko Goi-Nafarrera» 1, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao 1996, 9.

<sup>19</sup> J. DE RIEZU, *El Príncipe Luis Luciano Bonaparte*, «Príncipe de Viana» 19 (1958) 158.

<sup>20</sup> J.LIZARRAGA, *Doctrina Christioa euscarás exempluequi*, 1811 urt., 5. fol.

<sup>21</sup> M.LEKUONA, *Textos vascos del siglo XVIII en Tierra de Estella*, FLV 5 (1973) 370.

<sup>22</sup> Ibid., 1. fol (z.g.).

<sup>23</sup> A. IRIGARAY, *Lizarraga Elkano 'koa*, Euskera 4 (1959) 120.

<sup>24</sup> L. VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca* (Bilbao 1961) 233.

<sup>25</sup> «Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak – Hegoaldeko Goi-Nafarrera», 4, Bilbao 1996, 1347-1688. Ikusi daiteke, baita ere, J.APECECHEA PERURENA, *Joaquín de Lizarraga (1748-1835) – Un escritor navarro en euskara*, Pamplona 1978, 264-273.

<sup>26</sup> L. VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca* (Bilbao 1979) 237.

<sup>27</sup> A. IRIGARAY, *Lizarraga Elkano 'koa*, Euskera 4 (1959) 120.

L. MICHELENA, *Historia de la Literatura Vasca*, en «Historia de las Literaturas Hispánicas bajo la dirección de G. Díaz Plaja», V (Barcelona 1958) 366.

<sup>29</sup> L. MICHELENA, *Historia de la Literatura Vasca* (Madrid 1960) 102.

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.  
Herminio Madinaveitia, 18-pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 978-84-457-2755-3 (Lan osoarena)  
978-84-457-2759-1

L.G.: VI-278/08

# BIDCGILLEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco